ABALTZISKETA

AKATSEN ZUZENKETA

Merezimenduetan akatsa egin da eta zera esaten duen lekuan:

3.3.- Baloratu beharreko merezimenduak:

— Administrazio publikoetan egindako lana (a eta b atalak)

Lan esperientzia baloratuko da, gehienez ere 25 punturekin, modu honetan:

a) Bitarteko funtzionarioaren izendapen batekin edo izendapen akzidental batekin gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan emandako zerbitzuengatik: - 0,40 puntu Idazkaritza-Kontuhartzailetza azpieskalan emandako hilabete osoko. - 0,20 puntu Idazkaritza azpieskalan emandako hilabete osoko. - 0,20 puntu Kontuhartzailetza-Diruzaintza azpieskalan emandako hilabete osoko.

b) Administrazio Publikoan Idazkaritza-Kontuhartzailetza azpieskalari gordetako eginkizunekin lotutakoak esleituta dituzten A1 azpitaldeko lanpostuetan, emandako zerbitzuengatik: 0,10 h hilabete osoko, gehienez ere 10 puntura arte. Alegatutako lanaldi bakoitza behin bakarrik baloratuko da, eta arestian jasotako eskalen arabera gehieneko puntuazioa emango zaio.

Zenbaketa egiteko, azken 20 urteetan lan egindako aldiak batuko dira; eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

— Prestakuntza espezifikoa (c eta d atalak) Prestakuntza espezifikoa baloratuko da, gehienez ere 20 punturekin, modu honetan:

c) Lanpostuaren eginkizunekin lotura zuzena duten titulu akademikoak edukitzea baloratuko da: 10 puntu, titulu bakoitzeko. Lizentzia edo graduko unibertsitate-titulu ofizialak, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko abuztuaren 16ko Ebazpenaren eranskinean jasotakoak, eta Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen jakintza-adarrari buruzkoak, honako esparru hauetan: Administrazio eta Kudeaketa Publikoa, Zientzia Politikoak, Soziologia, Zientzia Juridikoak, Zuzenbidea, Ekonomia, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Berrikuntzaren Administrazioa eta Kudeaketa, Ekonomia Finantzarioa eta Aktuariala, Lan Zientziak, Lan Harremanak eta Giza Baliabideak.eta Zuzendaritzako Gradua edo baliokidea. Ez dira baloratuko deialdian parte hartzeko eskatzen diren eta betekizun gisa alegatu diren tituluak.

d) Aurreko atalean aipatu esparru horietan graduondoko titulu akademikoak edukitzea baloratuko da: 5 puntu, 30 ECTS kreditu baino gehiagoko gainditutako graduondoko ikastaro bakoitzeko.

Zera esan behar du:

3.3.- Baloratu beharreko merezimenduak:

— Administrazio publikoetan egindako lana (a eta b atalak)

Lan esperientzia baloratuko da, gehienez ere 15 punturekin, modu honetan:

a) Bitarteko funtzionarioaren izendapen batekin edo izendapen akzidental batekin gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan emandako zerbitzuengatik: - 0,40 puntu Idazkaritza-Kontuhartzailetza azpieskalan emandako hilabete osoko. - 0,20 puntu Idazkaritza azpieskalan emandako hilabete osoko. - 0,20 puntu Kontuhartzailetza-Diruzaintza azpieskalan emandako hilabete osoko, gehienez 10 puntu.

b) Administrazio Publikoan Idazkaritza-Kontuhartzailetza azpieskalari gordetako eginkizunekin lotutakoak esleituta dituzten A1 azpitaldeko lanpostuetan, emandako zerbitzuengatik: 0,10 h hilabete osoko, gehienez 5 puntura arte. Alegatutako lanaldi bakoitza behin bakarrik baloratuko da, eta arestian jasotako eskalen arabera gehieneko puntuazioa emango zaio.

Zenbaketa egiteko, azken 20 urteetan lan egindako aldiak batuko dira; eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

— Prestakuntza espezifikoa (c eta d atalak)

Prestakuntza espezifikoa baloratuko da, gehienez ere 9,75 punturekin, modu honetan:

c) Lanpostuaren eginkizunekin lotura zuzena duten titulu akademikoak edukitzea baloratuko da: 6 puntu gehienez , 3 puntu titulu bakoitzeko . Lizentzia edo graduko unibertsitate-titulu ofizialak, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko abuztuaren 16ko Ebazpenaren eranskinean jasotakoak, eta Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen jakintza-adarrari buruzkoak, honako esparru hauetan: Administrazio eta Kudeaketa Publikoa, Zientzia Politikoak, Soziologia, Zientzia Juridikoak, Zuzenbidea, Ekonomia, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Berrikuntzaren Administrazioa eta Kudeaketa, Ekonomia Finantzarioa eta Aktuariala, Lan Zientziak, Lan Harremanak eta Giza Baliabideak.eta Zuzendaritzako Gradua edo baliokidea. Ez dira baloratuko deialdian parte hartzeko eskatzen diren eta betekizun gisa alegatu diren tituluak.

d) Aurreko atalean aipatu esparru horietan graduondoko titulu akademikoak edukitzea baloratuko da: Gehienez 3,75 puntu, 30 ECTS kreditu baino gehiagoko gainditutako graduondoko ikastaro bakoitzeko.

ABALTZISKETAKO HERRI NOBLE ETA LEIALA

ABALTZISKETA